

# Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 2.a eta 3.a

Caia: Eskolan

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/2



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

Zure ikaskideak zuk egin ditzakezun eta egin behar dituzun gauza berak egin behar ditu eskolan.


## **Diabetesa izatea ez da ezertarako oztopo.**

Litekeena da zenbaitetan tresna berezi batzuk erabiltzen ikusi izana. Esate baterako, zerbait jan behar duenean (adibidez, jolas-orduan edo jangelan), odolean duen glukosa-kopurua neurtu behar du eta, ondoren (ez beti), intsulina injektatu behar izaten du.

Glukosa neurtzeko horrelako tresna bat erabiltzen du.



Intsulina injektatzeko boligrafo baten itxura duen tresna hau erabiltzen du.



Zenbaitetan, klasean egon arren, zerbait jan behar izaten du. Odolean glukosa gutxi duela eta gehiago sartu behar duela nabaritzen duenean izaten da hori. Irakasleak badaki bere osasunarentzat garrantzitsua dela, eta horregatik ematen dio horretarako baimena.

Litekeena da hari komunera joaten uztea eta zuri, aldiz, ez. Hori gertatuz gero, ez ezazu pentsa irakasleak begiko duenik. Glukosa gehiegi izateak pixagalea sortzen du, eta horregatik uzten dio irakasleak komunera joaten.

Orokorrean, horiek dira zure ikaskideak diabetesa izateagatik eskolan egin ditzakeen gauza bereziak.

# Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 2.a eta 3.a

Caia: Eskolan

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/2



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

**Ikus ezazu honako taula hau.**

	Glukosa neurtu	Zerbait jan	Intsulina injektatu
Jolas-orduan	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Corputz Hezkuntzako klasean	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Jangelan	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Glukosa gutxi duela nabaritzen duenean	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>